

A R R A I N S U N D A

=====

Antzerkia, lau ekitalditan.

Egilea: AUGUSTIN ZUBIKARAI

ONDARROA.

1986

ARRAIN SUND A

Irudigilleak

LINE }
IZAR } Andra egiñak.
GARO }

BATIS }
DURDO } Adineko arrantzaleak.
MILLAN }

SIMON. Irurogetak urtetako arrantzalea.

TXO. Lenengo ekintza bietan, gaztetxo. Laugarrenean, gazte mardul.

PAUL.- Kofradiako zaindari, gaixo eta tratxarra.

IDURRE.- Txo'ren ama. Andrazko egiña.

TXIMISTA.- Berrogetak urtetako arrantzalea. Kofradiako lendakaria.
Arrantzaleak eta andrazkoak, betetasunerako.

IRUDIA:

I ekitaldian.- Itxas ertzeko erritxu baten portu aldea. Egalean arrantzalien etxeak. Erdian, kai ingurua, tresna eta abarrez betetako Egalean, atze eta goragoko maila baten, itxas zabala.
Egun illuna. Ekaitza itxasoan.

II Ekitaldian.- Idurre'ren etxeke atadian, barrua osorik ikusten dala.

III Ekitaldian.- Kofradiako batzar aretoan.

IV Ekitaldian.- Kofradiako batzar aretoan.

Giroa: Gizaldi onen asieran.

Jantzi eta tresnak: girokoak.

-I EKITALDIA
=====

I IRUDIA

LINE ETA IZAR

(Line eta Izar kezkatu agertzen dira, kalean bera. Batzutan, kendu eziñeko kezka lez, itxasora begira, bestetan erruki eta otoitz antzean.)

LINE.- Ene ba da! Au izango da gogorra!

IZAR.- Orretan zagoz?

LINE.- Ni bai. Arimaraiño bildurra sartuta daukat. Benetan diñotsut. Ikusiko dozu. Gaur be...

IZAR.- Gaur be negar egiteko ondandiren bat eukiko ete dogu ba?

LINE.- Ia egunero negarrez ibili bear au be... Nora begira zagoz, baiña. Antigua^{ko} Ama maitea?

IZAR.- Eta zeuk ondo ikusten dozu batela?

LINE.- Aurrean daukazu zeuk be.

IZAR.- Nik ezin.

LINE.- Ez naz ni bakarrik. Ba dira goiko bidean guk baiño ardura geiagoz jarraitzen dautsen zarrak.

IZAR.- Millan^{eri} deituko dautsagu?

LINE.- Millan^{eri} bakarrik?

IZAR.- A beintzat lenena da olakoetan zirt-zart erabagia artzen.

LINE.- Eta Durdo^{ri} ez?

IZAR.- Bai beste edozeiñeri be.

Bi oneik Garo^k bizkortuko dauz.

(Etxe batera deika) Garo! Garo!

LINE.- Ze demoniñotan dago bera erantzun barik?

(Deika) Garo! Garo! Ia txikiña! Orixe da nekez erantzutea!

IZAR.- Ez ete dago etxean?

LINE.- Gizona siestan eta bera kanpuan? Orainarte ez beintzat.

II IRUDIA

LINE, IZAR eta GARO.

GARO.- (Leiora agertuaz)

Zer darabiltzue zeuok, bazkal ondo onetan, senarragaz ordu erditxo bat egiten be itxi nai ezka?

IZAR.- Entzun egizu. Deitu arin Millan'eri.

GARO.- Zetarako deitu?

IZAR.- Durdo'ri be bai. Goian ez da bizi ba?

GARO.- Ze kanpai dakartzue?

IZAR.- Egizu arin esaten jatsuna, gauzak baltz dagoz-eta.

GARO.- Ezer gertaten al da?

LINE.- Ziur ezin esan, baiña itxsoan gauza onik ez dabil.

GARO.- Gizonak etxean ez dagoz, ala?

IZAR.- Begiratu egizu ortixek Saturraran aldera. Emendik baiño obeto ikusiko da ortik. Batelik igarten ez?

GARO.- Eta?

IZAR.- Mendebalak tatarrez daroa.

GARO.- Nutrikuarren bat ez ete da? Arako bandan igarten da.

IZAR.- Bai zera! Simon zarraren batela da.

GARO.- Ez da egia izango. Ze zoroaldi euki dau berak, gizonak etxean eta bera, agure zar a bakarrik joateko?

IZAR.- Ez dabil bakarrik. Txo darabil beragaz.

GARO.- Zein esan dozu? Txo?

IZAR.- Ez dakizu? Idurre'ren semetxoa.

Deitu arin gizonari, deitu. Ez denporarik galdu.

GARO.- Ziur zagoze eurak dirana?

LINE.- Ez dozuz ba ikusten?

GARO.- Ez da ondo igarten, ikusiarren. Nutrikuarren bat ez ete da etxerako bidean?

IZAR.- Ezetz! Ziur egon. Goiko bidetik ikusi dabenak be ziur dagoz.

LINE.- Zeuk ez pentsatu taketa jota gatozanik,

IZAR.- Ikusiko dozu. Gaur be... Kanpainikoa jotzen ez ba da, ez da asko faltako.

Auxe izango da gogorra!

(GARO leiotik barrura sartzen da.)

III IRUDIA

LINE, IZAR ETA BATIS

(BATIS agertzen da kaletik zear)

IZAR.- Zetan zagoze gizonak?

BATIS.-Pipia joten gu.

LINE.- Dotore emoten dautsu ba orrelako erantzun batek!

BATIS.-Zelan itandu, ala erantzun.

LINE.- Kanean bera ikustean...

BATIS.-Zer ba, beti itxasoan ikusi nai?

LINE.- Nun dira beste gizonak?

BATIS.-Besteak? Nortzuk?

IZAR.- Gu zerbait dakizulakoan geratu gara.

BATIS.-Zetaz?

IZAR.- Ez dozu ezer entzun? Ez? Ez dozu igarri zerbait gertaten danik? Ez?

BATIS.-Zetaz baiña?

IZAR.- Esnatu zaitetz, gizon? Begiratu aurrera!

BATIS.-Nora?

IZAR.- Esatea bel

(BATIS itxasora begira igarriko da.)

LINE.- Gaurkoa izango da baltza. Arrantzaleak etxean eta agure-umeak arrantzan, itxasoan.

Konturatu zara? Igarri batela zeinena dan?

BATIS.-Ze gertaten da?

LINE.- Ez dozu igarten batela, tartetan, zelan dabillen?

BATIS.-Simon'ena da?

LINE.- Besterik ez da falta portuan.

BATIS.-Agure onek eroango gaitu danok beste mundura, denporak baiño len. Eta esaten dozuenez bakarrik ez dabil.

IZAR.- Txo mutiitxoa eroan dau beragaz.

BATIS.-Nungo Txo?

IZAR.- Idurre'ren semia.

BATIS.-Pongoliño a gaur be?

IZAR.- Ber bera.

BATIS.- Orrek ez dauka ez bururik ez zentzunik. Arrokafi ugari eta beste-
rik ez.

IZAR.- Eta goiko bidetik ikusten diarduenak diñoe, igarten dala mutillak ezin
dauala ezer egin, ia alegiñik be ez.

BATIS.- Mutillak ez eta agureak bai?

IV IRUDIA

LINE, IZAR, BATIS, DURDO eta MILLAN

(DURDO eta MILLAN agertzen dira etzetik.)

LINE.- Juangoikuagaitik, gizonak, ^{ba}eragi egizue zerbait.

DURDO.- Gu bakarrik zer egiteko?

MILLAN.- Barerik be ez dago urten al izateko.

(Kofradiako kanpala entzuten da.)

IZAR.- Ara Kofradiako kanpala be, gizonak deika.

MILLAN.- Aintbesteko arriskua ete da ba? Orrenbesteko olaturik bai?

LINE.- Ezin sartuta egon dira, eta orain, tatarrez daroaz itxasoak.

DURDO.- Agure zar orrek denporak baino len eroango gaitu danok batek ba daki
nora eta bera bizi gelditu.

IZAR.- Orreri laga eta asi zaiteze zerbaitetan.

MILLAN.- Esatea erreza da. Zein txalopagaz?

Gureagaz ezin lei oraindik urten. Ondua joko genduke.

DURDO.- Bizi guztian itxasoan dabillan batek ez igartea be mendebala etorranik.

MILLAN.- Igarri bai arek.

IZAR.- Ori esaten dot nik be.

MILLAN.- Eta ba dakizu zelako buruak daukan, ala, zentella alu alakuak?

BATIS.- Merezki be ez leuke arek laguntzarik, ia bein konturatzen ete dan.

LINE.- Ez zaiteze jardun eztabaidetan. Danok dakigu ta kittu. Orain ez dago
besterik salbateko alegiñean ekitea baino.

IZAR.- Kontu egin errurik ez daukan opilla lako mutiltxo guri-guri bat beragaz
dabillala.

DURDO.- Beste kezkaean artean ori. Onezkero etenda ez ba dago. Belia beratu
ondoren, ze egin leikie ^{biak} baik be?

Eta aizeak tatarrez aitzetara ez eroatekotan, Simon zurra da eta, onezkero

bere belatxoa kenduko eban, ez?

MILLAN.-Ala dirudi.

DURDO.- Eta beia barik, orain, itxas zakaden mende, zelan eutsi biak bakarrik? Mu-
triku'n sartzeko be gaitz.

LINE.- Origaitik, ez zaitzeze geldi, mesedez.

DURDO.- Zeure txalopea ataraz bearko dogu, Batis.

BATIS.- Orretarako sei lagun gitxienez bear gara.

DURDO.- Batuko gara laster.

(Illiundu egiten da antzeztokian postu alde, eta atze aldean, itxasoko
batela agertu eta bertakoen ekinia oartu eta agarri, bateleko bien estu-
tasunagaz konturatus.)

V IRUDIA

SIMON EPA TXO (Batelean)

SIMON.- eutsi, eutsi, Txo!

TXO.- Dardaraka nago.

SIMON.- Al dan bestean eutsi.

TXO.- Eztarriko miña be ba daukat.

SIMON.- Otxarena da.

TXO.- Miña baiño alako korapillo bat geiago.

SIMON.- Orreri, zarrok arrautzak eztarriko zulora igotea deitzen dautsagu.
Ikasiko dozu.

TXO.- Zer dala?

SIMON.- Ikasiko dozu.

TXO.- Zeu be bildur zara?

SIMON.- Bildurrak salbatuko gaitu ain zuzen.

TXO.- Ez gaitut ulertzen.

SIMON.- Bildurra daukagulako nago emen, kaira sartzen asi barik.

TXO.- Gausa egin arte?

SIMON.- EZ, mare gorakuaren erdi ingururarte.

TXO.- Eta itxasoa gogortu eta baitzituden ba da?

2

SIMON.-Itxas zabaleko ekaitza arrua izaten da,baina ez gaiztua.

TXO. -Danak diñue zu be arrua zareala eta ontxe be ziur nago orixe esaten egongo dirala asko leorreen.

SIMON.-Boga daigun kanpora.Barrura sartu barik kanpora jo bear dogu,beti be aitzen ondotik aldendu.

TXO.- Indar askorik ez daukat.

SIMON.-Indarra atara egin bear izaten da ez dagon tokitik be eta orretarako aleginik ez ukatu.

TXO.- Jo! Etenda geratuko gara.

SIMON.-Kanpoan itxasoa bigunago egoten da,baketsuago,portuko sarreretan baino.

TXO.- Nik ezin nei Simon. Ezin nei...

(Eta negarrez asten da,bat-bateko urteera mintsu eta zaratatsuz.

Simon berberari ikutu egiten dautso miñaldi orrek eta negar ixillean igarriko da.)

Zeu be negarrez zagoz,ez ukatu. Eta gure ama be negarrez egongo da kaiean... Danak negarrez eta gu ementxe,azkenetan.

SIMON.- Zure ama emakumea da.Adoretu zu gizon lez.

TXO.- Ezin...ezin...

SIMON.- Aleginak neurtu daiguzan,bion onez.

TXO.- Salbatuko gara?

SIMON.-Zer esan dozu?

TXO.- Zer esago dot,ba? Salbatuko gara?

SIMON.-Orain barrura sartzen asi ba gina,~~bat~~^{batelak} tirabira egin eta igarian olatu artean ibilteko arriskuan egongo ginan.

TXO.- Eta itto.Ez?

SIMON.-Ez zaituz aian ezkor.

TXO.- Nik ez dakit igari egiten.

SIMON.-Eta zeinek daki ondo?

TXO.- Gero ta indar makalago daukat erramua erabilteko.

SIMON.- Ez etxi.

TXO.- Gero ta lanbro geiago,itxasoa ikusteko be.

SIMON.- Egualdiarena da.

TXO.- Gero ta eskumarago ikusten dot gure erria.

SIMON.-Eta zer besterik? Aian bildurti ziñala jakin ba neu,,,

(Aize brastadak.Batela erdi tirabira egiñez igarriko da)

TXO.- (Deika) uluka, arrenka...)

Ama! Ama! Amatxu...! Ene ba da ta! Ezin, ezin...!

(Simon'ek, ezin erantzunda, Txo besoetan artu eta txalupan biak tente eta besarkatuta ikusten dira)

SIMON.-Bizia luzatu egin bear da, al dan bestean luzatu, Txo.

TXO.- Baiña au arinago itto eragitearren da.

SIMON.-Ez. Batelak ia tirabira egin dau. Baiña olatua igaro da.

TXO.- Arrisku andian gagoz, ez ukatu.

SIMON.-Ori gertatuko ba litz, nik emon neiketzuken laguntasunik andiena au izan-go litzake: Ur gainean, azalean ikusi eta zure alboan jarraitzen alegin-du, erramuari edo panelen bateri eutsita.

TXO.- Ez daukat indarrik.

SIMON.-Ez estutu zeure burunik.

TXO.- Jota nago.

SIMON.- Eutsi. Ez da ain errez ittoten.

TXO.- Neure Jesukristo jauna ez dakit ondo.

SIMON.-Txo, neuri fraile batek konfiantzaz esandako gauza bat agertuko dautsut: Marinelik ez da inpernura joaten.

TXO.- Ondura bai...ondura bai...

Ai ene, nire ama! Amatxu...!

(Itxas aldeko irudia illundu egiten da, ta kaiekoa biztu.)

VI IRUDIA

LINE, IZAR, GARO, BATIS, DURDO, MILLAN ETA MARINELAK eta ANDRAZKOAK, antzez-tokiak eskatu aiña.

DURDO.- Igarten da mutillak ezin dauala ezer egin.

MILLAN.-Ez bata eta ez bestea ez dira gauza batelean jarraitzeko eta batelari eusteko.

BATIS.- Usterik gitxienean tirabira egin lei ontziak eta biak itto.

DURDO.- Emen geldi egonda ez dago ezer. Zeiñek etorri nai dau nigaz gure txalopan?

(Ixilunea. Alkarri begiraka.)

Ez dozue entzun? Zein da nigaz egorri gura dauana?

MILLAN.- Arrisku gogorra da.

DURDO.- Gizona danak bereak agertzeko berebizikoa,

MARINEL I.-Sei batzen ba gara neu bat.

" II.- Eta ni.

" III.- Neu be bai.

DURDO.- Besterik?

Barrako urteera igaro ezkerro, gure txalupak ez dauke ekaitz oneri atzerarik. Ainbestekoak sarri igaro doguz itxas zabalean.

MILLAN.-Ur gitxiegi dago urteteko.

DURDO.- Txalupa azalean joateko aina ba dagola uste dot.

Ia! Konturatu zaitzeze. Guk lagundu ezik, areik Idur azpira itxasoak eroan eta an galduko dira.

IZAR.- Beste lagunik ez?

Ia gizonak, entzun: Beste lagunik ez?

BATIS.- Ez da lagunena kontua. Barratik urteteko aina urik ba ete dagon edo ez jakitea baiño.

Ziur zagoz Durdo zure txalopak ondorik ez daukala joko eta orrela ondoa jota ez atzera ta ez aurrera ez dala geratuko?

DURDO.- Ori neuk ziurtatzen dot.

BATIS.- Zurea joan al ba da, gurea azalago da eta errezago joango da. Gure txalupa gertuteko prest nago.

LINA.- Ori! Bakarra barik bi obeto.

MILLAN.- Biak bearko dira.

BATIS.- Gertu nagola esan dot. Ia gizonak, borondaterik?

MARINEL I.-Neu nator bat.

" II. Eta ni.

" III.- Ni be gertu nago eta au...

(GARO agertzen da, etxetik.)

BATIS.- Txikotik gertu dozu, Durdo?

DURDO.- Zetarako?

BATIS.- Txalupa lotuta ekarteko, besterik ezean.

GARO.- Ehen netorren ni besakada bategaz.

DURDO.- Sekula egon da gure txalupan orrelako utsunerik?

Ia gizonak, sartu, sartu bateletara.

IZAR.- (Deika) Uxabio! Batorrena umezurtz lagateko biderik ez egin gero, Jaun-

goikuarren!

(Barrero portu aldean illundu ta itxas aldean argitzen da.)

VII IRUDIA

SIMON ETA TXO.

SIMON.- Ez neban sekula pentsatuko au gertatuko zanik.

Entzuten, Txo?

TXO.- Ama! Amatxu...!

SIMON.- Egunen baten gure kaletako barraen aza zabaldu eta sakonduko dabe.

Urei tokia egingo dautse eta inguru aretako arriskuak kendu. Baiña nik, geroari barik, gaurkoa begiratu bear neban.

Entzuten Txo?

TXO.- Bai...bai...baiña errezatu be ezin dot egin.

SIMON.- Kontuan euki. Txarto urtetan ba dausku be, barratik kanpora urtenaz

erabili dogun jokabidea beti artu eta eutsi bearrekoa dala.

Baiña zu...entzuten? Zu mutik bigun zara eta ni ointxe konturatu naz, agure lotu. Ziur egon itxasak ez gaitula gaindu; gure urteak, zu beregi ta ni goregi izan dira saildu gaituenak.

Entzun, Txo: gogorra da, baiña ez daukat ittotearen bildurrik. Sekula ez dot euki. Baiña bai, batez be gaur, ittotearen lotsa. Ba dakizu zegaitik? Danak esango dabelako arroegi izan nazalako galdu gareala.

TXO.- Galdu, ezta?

SIMON.- Alaz eta ni ez naz arro, Txo. Nirea bizioa lakoxea izan da. Beti itxa-

soan egon naia. Itxaskeria. Baiña naizena danentzat daukat eta dakidana erakusteko gertu, zugaz ibili naizen lez.

Entzuten, Txo?

TXO.- Gure amak ba leki...!

SIMON.- Ez bildurtu. Bizinari laga sekula be ez, eutsi baiño, azken azkenarte.

TXO.- (Gero ta negar zotinan, inkesa eta uluz)

Ai ama...amatxo...!!

SIMON.- Adoretu zaitte. Ezin geinke gure indarrez ezer egin, baiña biktzak

esaten eustan nigaitik ez da be, zugaitik erritarrak urtengo ebela

gure laguntzan, eta begira... or datoz txalopa bi.

Gu mendebalak aitzetara eroan orduko, eurak gugana elduko dira, lortuko dabe urreratzea, bizkor datoz-eta.

Eutsi! ~~gata~~

TXO.- Ezin... ezin... Erramua azkatu eidazu esku-artetik, etzan nadin. Odol usaina lakoxea daukat aoran.

SIMON.- Pixka bat geiago eutsi... aitzetara urreratu ez gaitezen. Ba datoz erritarrak. Begira... ba datoz...

(Baina TXO, buruari lagata, bertan bera makurtzen igarriko da.)

Illuna egiten da itxas aldean, eta kai aldea argitu.)

VIII IRUDIA

LINE, IZAR, GARO, geroago MILLAN eta ERITARRAK. Euren batean SIMON ETA TXO, eta BATIS, DURDO.

LINE.- Auxe da egoera larria!

IZAR.- Laga eidazu Salbia amaitzen.

LINE.- Zuk bat orduko nik bost esaten dodaz.

IZAR.- Zer esaten dozun be ez dakizula.

GARO.- Ori ziurrago.

LINE.- Zer diñozue zeuok?

GARO.- Gurea auxe dala. Negar eta otoi. Edo otoi eta negar.

LINE.- Nik beintzat nire alarguntzea kresalez ondo beteta daruat.

IZAR.- Nik be aitari betirako lutoa agindu neutsan.

(MILLAN agertzen da.)

LINE.- Zer diñue, Millan?

MILLAN.- Zorionez ba datoz, baina gure barra ori ez da olgetarako.

GARO.- Bikiarik datoz?

MILLAN.- Simon bai.

LINE.- Eta txikia?

MILLAN.- Txamarra bategaz estalduta dakarre.

LINE.p Ilda ziurretik.

MILLAN.- Edo ez. Bear ba da otzitura. Itxasoa ez da uneentzako egiña.

(Parrokiko kanpaia asten da.)

IZAR.- Ene ba da ta! Kanpaiak.

LINE.- Ixi!

GARO.- Il da ete dakarre?

LINE.- Entzun... Ez,errepikarik ez dabe joten.

GARO.- Agoliñakua be ez da.

MILLAN.-Beti zagoze txarto pentsaten. Bizitzak ez al dau itxaropen geiago merèzi?

IZAR.- Salbetako kanpaia dirudi.

GARO.- Alaxe da.

LINE.- Mutilla estu dakarrelako izango da.

IZAR.- Amak aginduko eban,edo eskatu,Salbea.

LINE.- Ala izango da ziurretik.

MILLAN.-Ni be ekarri ninduen eta kanpaia jo be bai.

IZAR.- Eta ez zinan il.

MILLAN.-Berpiztu be ez,eta emen nago.

Itxasoa oraindik ezagutzen ez dogun eskola da ta kittu.

GARO.- Maixu batzuk baiño zaplada geiago emoten dakiana.

MILLAN.-Geu be ezagutu eta ikasten ez garealako alegintzen.

IZAR.- Errezaten erakusten dau ba!

MILLAN.-Azken baten fedeak salbatuko gaitulako.

(Erritarrak agertzen asten dira.

Barra aldeko bidetik datoz.

Aurrengoetan,SIMON dator,Burua makur.)

IZAR.- Oraintxe be zer esanahi ipini dozu zuk errian.

SIMON.- Jakin barik ez berbarik,mesedez.

IZAR.- Mesedez,nai dozuna eginda gero. Orrelakoxea zara beti.

SIMON.- Zeu be beti bardina zarean lez.

GARO.- Kezka eta negarra ekarri dauskuzu beintzat.

LINE.- Beti lez burugorra da izan be-ta!

(SIMON aurrera dua. Gizon artean lepoan dakarre TXO.)

GARO.- Koitadua,bizirik dator?

Batek.- Bai. Otzak ilten,baiña bizi da.

IZAR.- Benetan be bizirik?

Batek.- Baietz ba!

(Ondoren Erritarrak datoz. Eurekin alkartu ta aurrera joaten asten dira len bertan egozanak,eleizarako bidean, Salbetara, danak kantari:

Bateltxoa kulunkaz itxas gordinean,
ojuka mariñelak laguntza eskean;
Sarri egiñagaitik itxasoak orru,
Antigua'ko Anak,eskuak luzatu...

OIALA

64

II EKIPALDIA

I IRUDIA

SIMON ETA PAUL

(Atadian, asarre, alkarregaz bizi guztian erretako gizonen antzera)

SIMON.-Oraindik be emen zabiz, Paul?

PAUL.- Irugarrenean go dau emen lurra.

SIMON.-Zu lakoak sarri. Zer nai dozu?

PAUL.- Len esan dautsut Kofradiara boletoa eroateko esan dabela.

SIMON.-Erantzun dautsut ez daukadala gogorik.

PAUL.- Barrio bialdu nabe umekerietan ez ibilteko jakin erazten. Orrek ez dauala balio.

SIMON.- Baliokoa billatzea dauke.

PAUL.- Billatuko dabe, bai. Eta sasoi^a zan neurriak artzen asteko. Atzoko estutasunak arrotu egin zaitu?

SIMON.-Orrelakoak ondo ikusten dituana, lebatza baiño kolaixo txis^uia ziurrago.

PAUL.- Mendebalak ia galduta ibili diranekaitik be zerbait esan lei.

SIMON.-Iparra artu baiño len itxasoari atzea emon eutsenakaitik be zer kontatu batu lei.

PAUL.- Ez zaizala jo nire gaixoak.

SIMON.-Bat^kzuma alperkeriari be gaixoa deituten dautse. Ez naiala oiako batek denporak baiño len mendetu.

Dana dala, kopletan ibili barik. Zer nai dozu jakin irugarren mezu onetan?

PAUL.- Zeu zara, zeu, jakin bear dozuna.

SIMON.-Zer?

PAUL.- Ba sasoi eldu dala zuri eskarmentu on bat emoteko.

SIMON.- Zegaitik? Atzokoagaitik bakarrik?

PAUL.- Bat baiño geiago dira orretan.

SIMON.- Eta ori da zeuk esateko dozuna?

PAUL.- Merez*z*i be batzuk besterik?

SIMON.- Txotxolo alu ori. Orretarako zaitugu Kofradiako mandatari? Esan bein.

Zer da billatzen dabena eta nortzuk?

PAUL.- Ba boletoa eroateko Mofradiara.

SIMON.- Zeinek diño?

PAUL.- Deilariak. Señeruak.

SIMON.- Zetarako?

PAUL.- Kentzeko izango da nunbait.

SIMON.-Niri boletoa kendu, itxasorako baimena kendu? Zeinek eta señeruak?

Ez dago orretarako bizarrik.

PAUL.- Ez diarduzu ba sarri-sarri erritarren arrautzak eztarrira igo eragiten?

SIMON.-Bragetatik kolpe egiten ba dautsut zurerik ez da igoko.

PAUL.- Esatekoa esanda dago.

SIMON.- Neuk dinotsut emen ez dagoia barrabilik niri itxasora joatea galera-

zotan ~~ez~~ dauan bandera gorria eskeita ez dagon egunetan, nai dodanean

urten eta joaten galerazoko daustanik.

PAUL.- Esan dautsut deilarien agindua dala.

SIMON.- Ubeto egingo le~~g~~kie itxasoetan denpora geiago sartu, mendebal usaina

artzen asi orduko tatarrez ontzi guztiak etxera ekarten arduratu barik.

Orrelaxe duaz gero gure gauzak. Atzeari begira. Illean egun erdiak

etxean egonda, emengo "arri-alperrei" nundik jaten emon?

PAUL.- Eta zer da obe, ori ala bizarrak urteten asi bako mutil errukarriak

itxas ondoetara bialtzea?

SIMON.- Zeinegaitik diñozu ori?

PAUL.- Zuk diñozun arri alperrak ez dakielakoak zirikadak nora duazan igarten?

SIMON.-Ozkil alu ustela! Sekula zeure bizitzan alperkeriz berorik be jan ez

dozun orrek, niri esan mutillak itxas ondoetara bialtzen dodazala?

PAUL.- Arrokeriak eragiten dautsu dana.

SIMON.- Okotzeko bat emoten ba dautsut!

PAUL.- Lotsa daukazu atzoko arratsaldea ikusita, gaur era onetan txakurtuteko?

Nun euki zenduzan atzo gaur atara nai dozuzan indarrak?

SIMON.-Berbarik be geiago ez egin, depuntuen kolore ori lur kolorean biurtuta

lagatea nai ez ba dozul

II IRUDIA

PAUL, SIMON ETA LINE.

LINE.- (Eurekana urreratuaz)

Zer darabiltzue zeuk bero-bero eginda?

Umeak be ez zarie bai

Sartu zaitetz barrura, Simon. Txo'k zu ikusi naia dauko.

Eta zu, Paul, joan zaitetz.

Onezkero ikasi bear zendun Simon'eri onez edozer, baiña txarrez ez dautsazuela ezer atarako.

PAUL.- Nik ezin nei utsik joan. Irugarrenez bialdu nabelako gaur beronengana.

SIMON.- Esan dautsut ni geiago ez berotzeko.

PAULO.- Boletorik ez ba dozu emon nai, batela lotuko dautsue.

SIMON.- Niri batela lotu? Zeinē? Zu lako mutxarri batek?

PAULO.- Zugaz al dauanik ez dago inor errian, ala?

SIMON.- Baz, eta esan egiozue.

PAUL.- Zer esan?

Esanak ez dau balio. Ikusiko dozu zer egingo dautsuen.

(PAUL joaten da)

III IRUDIA

SIMON, LINE eta IDURRE. Geroago TXO.

IDURRE.- (Urrrrratuaz) Txo txarto dago, Simon.

SIMON.- Benetan? Txarto?

IDURRE.- Bai.

SIMON.- Nok esan dau?

IDURRE.- Neuk dinotsut.

SIMON.- Ezin lei ain txarto egon. Baretzen joan bear leuke.

(TXO'ren oe ingurura sartzen dira) (Begiratu eta SIMON'ek eskutik oratu eta belarrira itz egiten asten da. Geroago, Txo'k begiak zabaldu eta Simon'eri begira lotzen da.)

SIMON.- Ezagutzen nazu?

TXO.- Ekatzu erramua.

SIMON.-Nungo erramua?

TXO.- Or ~~ez~~^{eskuetan} daukazuna.

SIMON.-Geldi mutil. Oean zagoz.

TXO.- Estrapuak urten egin dau toletetik.

SIMON.-Ez dago ardurarik,Txo.

TXO.- Ezin dot tenik egin.Ezin.

SIMON.-Bai.Egingo dozu.Nasai egon.

TXO.- Ez gara elduko.

SIMON.-Bai.Elduta zagoz. Etxean zagoz.

TXO.- Ez eidazu lotu arraunik.

SIMON.- Ez daukazu arraunik. Baretu zaitte.

TXO.- Ene,ene,ene! Olatu orrek aitzetara eroango gaitu.

SIMON.- Ez dago orren bildurrik.Oean zagoz. Ez da ezer gertatu.

TXO.- Arroegi zareala esaten dabe,Simon.

SIMON.- Izan nei,Txo.

TXO.- Odola daukat aoran.

SIMON.- Ez estutu,Txo. Etxean zagoz. Dana igaro da.Etxean zagoz.

-Esan egiozu,Idurre,etxean dagola.

IDURRE.-Laztana,ez zaitte keixatu. Etxean zagoz.

TXO.- Kontuz! Olatua dator.

IDURRE.-Zeure oean zagoz.Ez dago emen olaturik.

TXO.- Ederretik askatu gara!

IDURRE.-Orain amaren onduan zagoz. Zeure ama naz,Txo kutuna!

SIMON.- Mutil onek alboringua (pulmonia) daukala esango neuke.

LINE.- Orrek emongo dautsa sukarra.

SIMON.- Ziurretik alboringoa izango da.

IDURRE.- Ori be batu ete dau ba? Danak beronentzat ete dira?

LINE.- Alako itxura dauka.

SIMON.- Atzo arratsaldeko aize otza atzetik lotuko jakon.

Nik au...lenengotik barruz garbitu egingo neuke.Eta gero mugita ur egosia eman.

IDURRE.- Gure errian pasmu bedarra ipintea naiago izateu eben.

SIMON.- Nai dozuena egia gifei.Danetarik bedarrak daukalaraz etxean.

LINE.- Asunekin blastiatzea be ona dala esaten ekien gure zarrak.

IDURRE.- Egizu Simon nai dozuna, zuk onelako gauzetan ezazpide ona daukazula
ba dakigu-ta.

SIMON.- Nik agintzen dozuena, baiña arin esan.

IDURRE.- Errezena zer da?

SIMON.- Errezena barik egokiena egin bear da.

LINE.- Asunekin blastiatzea erreza ez da izaten eta komeni be, ola~~jo~~etan?

SIMON.- Ezpai barik.

IDURRE.- Baiña ta bero geiegi artu eta burua galtzen ba dau?

SIMON.- Len ez al dabil galduta?

(TXO, geldi egon ezinda eta besteak berari eusten)

TXO.- Kendu lepotik erramua!

Luzatu txikota Simon, luzatu!

Begira zelako brastadea. Tatarrez guaz...

SIMON.- Egon zaite geldi! Ez zabiltz batelean. Etxean zagoz.

TXO.- Belia, belia erriatu arin.

Aita gurea.... Ai! Zek jo nau?

SIMON.- (Besteei) Zaindu. Bereala etorriko naz. Kongu egin.

(SIMON juaten da)

IV IRUDIA

LINE, IDURRE eta TXO

IDURRE.- (Negarti) Gure semea ba yoaku, Line.

LINE.- Bai zera! Ez zaite estutu.

IDURRE.- Begiratu egiozu zelan zabaltzen ditun begiak!

LINE.- Gure begitansiñoia da.

IDURRE.- Ez...! Begiratu... Laztana, zer nai dozu, zer? Ementxe gagoz zuri
begira. Lebatz kumia lakoxe ~~akasa~~^{mutik} bizi-bizia! Ene ba! Koitadua,
finegi ~~kalako~~ Jainkoak beregana eroan nai!

LINE.- Gaixoak entzun egiten dabela esaten da, Idurre. Ez zaitez orrela jardun.

IDURRE.- Ene! Zetan joan da Simon?

LINE.- Laster etorriko da. Nasaitu zaitez. Bedar billa joan da.

IDURRE.- Zelako bedarrak?

LINE.- Zeuk ez dautsazuz eskatu, ba?

IDURRE.-Ez dakit nun nagon be.

LINE.- Ez estutu,Txo. Laster osatuko zara. Ikusiko dozu. Laster ibiliko zara zeuk nai izaten dozun lez,eskola barik,batelean. Ikusiko dozu...

V IRUDIA

LINE,IDURRE, TXO eta SIMON.

SIMON.- (arin agertuaz)

Ea! Asunekin igortzi daigun. Maltarik ez dautse egingo.

LINE.- (Txo'ri alkondara nasaitzen) Laster osatuko zara.

SIMON.- Ez daitela otzitu.

IDURRE.-Erreko da gaixua.

SIMON.- (Blastiatzen asi eta ekiten) Ez. Bigun-bigun ekingo dautsat.

TXO.- Zer darabiltzue?

SIMON.- Ez bildurtu. Zeure onean da.

TXO.- Izerditan nago.

SIMON.- Jantziz aldatzea komeniko litzake.

IDURRE.-Eta zegaz? Ez daukagu ezer.Birritan aldatu dogu ta beste zer jantxirik ez dauka.Sekula gaixo batik ez dau euki-ta!

SIMON.- Esku-zapi edo esku-txatal batzuk komeniko litzakez,besterik ezean izerdia kentzeko.

IDURRE.-Ene bai Besterik ezean neure gona barrenagaz kenduko dautsagu.

(Idurre eta Line,batetik bestera erdi galduta igarriko dira,zer ekarri ez dakiela. Simon'ek mutillari eutsi ta besteak zer ekarri aregaz legortzen alegintzen da.

Txo,nekez,baiña lo konkorrean lez gelditzen da.)

SIMON.- Ur pixkat mesedez.

LINE.- Ura sukarrez dagon bateri?

SIMON.- Onena. Urak ez dau kalterik egiten.

(Idurre'k edontzi batzen urreratzen dau ura.Simon'ek zapia busti eta ezpañetara urreratzen dautsa Txo'ri.)

Ba dirudi baretzen asi dala. Meselegarri izan da blastiaketa.

(Atea joten igarriko da. Line dua.Eta andik biurtuaz:)

- LINE.- Kofradiako ordezkari bat.
Esan dautsat ez zagozala emen.
- SIMON.- Nor izan da, Paul barrero be?
- LINE.- Ez. Durdo. Baiña besteren bat ba eukan eskutuan.
- IDURRE.- Eta atetik ez dau barrura begiratu?
- LINE.- Itxura baten ez.
(Barrero ateko deia)
- SIMON.- Atea?
- LINE.- Lengoak izango dira.
(Line atera dua barrero eta biurtuz)
Ba dakiela emen zagozana .
Kofradiaren izenean, an batuta dagozala, eta ainbat lasterren bertara joateko.
- SIMON.- Sakutik artzera bialdu egizuz danak.
- LINE.- Jesus! Orrelakorik ezin esan.
- SIMON.- Bildur barik, neuk agindu dautsudala orixe esateko, jakin eragin.
(Line atera dua. Eta barruratzean:)
Ez dagoz. Joan dira.
- SIMON.- Esan dautsazu nik zer esan dodan?
- IDURRE.- Entzun be egingo eban, gorra ez ba da.
- LINE.- Bäär ikusi bear eguna zelan argitzen dan.
- TXO.- Simon, ala-arriuan asiko gara? Berdelen bat jo dodala uste dot.
- SIMON.- Berdelak emen, Txo?
- TXO.- Fondo txikia bota bear genduke eta ikusi.
- IDURRE.- (Ixiltzu) Barrero be amesetan?
- SIMON.- Ez arduratu. Asko baretu da. Ez da luzaro jardungo.
- TXO.- Ekatzu tangarta.
- IDURRE.- Orain tangartagaz...
- TXO.- Aurreko paela jaso ta ur pixkat batzeko. Jo-pe! Lanbas au txikiegi da, ez dau urik artzen.
- SIMON.- Kendu zuek oe ondotik. Ziurretik dana entzungo dau. Itxi baketan.
Ariñago etorriko da-ta.
- TXO.- Kontuz! Kontuz! Ene, ene enee!!! Atxetara goaz eta kontuz!
- SIMON.- Ez dago orren bildurrik, Txo.

TXO.- Erria bela ori! Ezin?

SIMON.- Emen ez dago belarik. Nasaitu.

TXO.- Eten txikota! Brast!

SIMON.- Txo! Amesetan ezta?

Izan be atzokoa, bat batera, asko ikastea izan zan! Egon geldi,
bake-baketan. Kalma zuria dator laster. Laster! Etzan, gora begira.
Itxasoan baiño bareago lo egiten da etxean, ez?

OIALA

III EKITALDIA

I IRUDIA

TXIMISTA, BAPIS, DURDO, MILLAN, PAUL ETA ARRANTZALEAK

(Kofradiko batzar aretoan.

Atze aldian,erdian ,mai bat,lendakariarentzat.

Atze eta egal bietan,aulki luzeak,arrantzaleak jezarteko,aurreko mai barik.

Ormetatik dindilizka,urkula,lema zar,treetzara,traol,sare eta abar.

Santa Klara'ren irudi zar bat be bai.)

(Arrantzaleak batzartuta dagoz. TXIMISTA mai buru. Besteak tartetan jezarrita.

Garratz eta zaratatsu eta asarre jardungo dira.)

MILLAN.-Atzokoa egingo dau arek gaur be.Jaramonik ez eta etorri be ez,danoi irri egiñaz.

TXIMIST.-Ni nazala sekula ez da gertatu orrelakorik.

DURDO.- Baiña a Simon da. Ez dakizue? Apostolua lakoxea:Simon. Bera eta kittu.Dana dakiana.

BAPIS.- Zera jakin.Danok zemaituten,besterik ez.

MILLAN.-Bai eta burutik kaka be egingo dausku,zerbait erabagiten ez ba dogu. Baiña boletoa kentzen ba jako,kendu eta bakea.

DURDO.- Betiko gainera.

MILLAN.-Ez etorri gero abadeak parkatzeko eskatu dauala,edo mai-buruaren koñatua dala,edo...

TXIMIST.-Nire koñatua zein?

MILLAN.- Koñatua edo zortzigarren iztarreko senidea.Bardin da.

BAPIS.- (Irriz) Andrak aitzak.

DURDO.- Karkaban ezkondata ez ba dagoz...

BAPIS.- Ezkondu? Danak balioten dabelakuan?

TXIMIST.-Batzuk lako katakumiak ekarteko ez da asko bear.

BATIS.- Mesedez! Burlarik ez eta mai burutik gitxiago.

TXIMIST.-Nik ez,eta zeuok aora jatortsuena esan?

II IRUDIA

LENGOAK ETA SIMON.

(SIMON ate aurrean agertzen da.Ikusi orduko asten dira besteak zirikalari edo zemaika) (SIMON batari ta besteei begira,adorez)

MILLAN.- Izurdetan ibiliko zan ori eta ezin ordurako eldu.

DURDO.- Tollik ezin ilda ori,makilla apurtuta.

BATIS.- Orrenbeste marraixo dabil ortik,etorteko tarterik be ez artzeko?

PAUL.- Potozorri andia ori!

TXIMIST.-Faltaten asten dana,kalera joango da,~~eta agintzen~~

PAUL.- Danok sakutik artzera ez gaitu ba zemaitu?

TXIMIST.-Ixilik,esan dot. Nik Kofradia eta bertakoa zaindu bear dot,ez kalekoa.

(Simon'eri) Atean egotera etorri zara,ala?

(Simon sartu eta jezarten da,besteen artean.)

TXIMIST.-Zenbat dei artu dozuz?

SIMON.- Legekorik bat be ez.

TXIMIST.-Deilariena ez zendun artu?

SIMON.- Nire morroiak morroiak ba daukaz,zeiñek daki niri agindu daikedana nor dan?

TXIMIST.-Ba dakigu asmotxa zareana,eta gizon argia...

DURDO.- Matzakuko parola!

TXIMIST.-Ixa!

SIMON.- Orreri ixi eta katakumeari mixi,bardin da.

TXIMIST.-Zu be ez etorri naastuteko letaniak esaten,amen-amen garbi erantzuten baiño.

SIMON.- Ez nekian eleizako gauzetan gure ~~Kafaketa~~ mariñel koitaduen Kofradiako buru ori ain eskolaua ziñanik. Kardamuak ez dautsu jan zuri bururik San Pedro zarrari lez.

BATIS.- Edozer erantzuten laga?

TXIMIST.-Nigaz dabilen artean neuk erantzungo dautsat,eta ixilik mesedez.

Ez arduratu.

Paul^{ek} ez eutsun deitu?

SIMON.- Orrelako morroiekin Kofradia burua jatoteko asmotan ba dago...

DURDO.- (Sarre) Ikusten? Ori ez da iñor laidotzea?

BATIS.- Berak Paul begien aurrean ezin daualako ikusi,zegaitik orrelako desta^ñak?

MILLAN.- Nor da berori zein dan morroi egokia eta zein txarra ebatsiteko?

TXIMIST.-Ixilik,esan dot!

(Jendea mar-marrean bizi-bizi)

TXIMIST.- (Zaratatsu) Nik esan bear dot,eta danon aurrean esateko lotsarik ez daukat,ni mai buru naizenetik Paul^{ek} bere zereginak,bere aldeko edo aurkako izan,aginduta lez beteten jakin dauala.

BATIS.- Zu baiño zartxuago naz,patroi nausi,eta ez arritu nik gauza batzutan zeuk baiño geitxuago jakitea.

TXIMIST.-Zetaz?

BATIS.- Darabildun auzi onetaz.

TXIMIST.-Ori zure uste bat izan lei.

BATIS.- Izan lei ez.Da.

TXIMIST.-Edozelan be ori beste baterako lagako dogu. Urain zeatz-zeatz:Kartarik ez zendun artu?

SIMON.-Zuk ba dakizu irakurten ez dakidala,zoritxarrez,eta paperak,niretzat,baliorik ez daukela.

TXIMIST.-Baina Kofradiako zillua ikusten danean...

SIMON.- Asko balio dau zilluak,izenpe edo firma okerretakuagaz edo faltsuagaz ba dator.

TXIMIST.-Nok esan dau ori?

SIMON.- Txibien tinteagaz ikasi zendun firmaten ala?

Danok ez dakigu ba...

BATIS.- Zetarako laga arro orreri jarraitzen? Zetarako beste guztion gain jarkiten? Kanpora ta kitto.

SIMON.- Nok esan dau ori? Ia nor dan eskutuko mamu ori?

Ia,nor izan da ori?

Gaiñera Tximist,zuk ez dakizu erderarik,nik be ez. Zelan ulertuko gara kanielak eta tintoletak be,eurak diranak izanda,ulertu ezin daben berbetan?

TXIMIST.- Politikarik ez ekarri Kofradiara.

SIMON.- Ori esan dauana bera politika egiten ez al dabil, oraintxe bertan egin daben lez berba eginda?

DURDO.- Eta sakutik artzera bialtzeko patatak al gara gu?

SIMON.- Bakoitzak daki berba ori zelan artu. Or konpon. Ez al dagoz milla gauza sakutik artzen diranak? Ez gaitezen txiñorriekaz izubu, arratoiak dagozan etxe eta tokietan.

DURDO.- Ba dakigu iñoz jan dozuzala, txarri andi orrek.

SIMON.- Errekara duazan kairu zarretan dabiltzan aingira koipetsuak ez al dauz gogoz jaten ori esan dauanak?
Gauzak lagata, zer ba batzarreko gaia, edo zer da nigandik nai zenduena?
Mesedez, bixkor esan, etxeko zeregiñak daukadazalako.

TXIMIST.- Peru zure semea da?

SIMON.- Nok sinistuten dau ori?

TXIMIST.- Esan egiten dabe.

~~SIMON.~~ Eleizan itandu ia zeinen aitatasuna daukan.

TXIMIST.- Orregaz ez dozu ezer aldatzen.

SIMON.- Nire itxura artu al dautsazue?

TXIMIST.- Esan egiten da, eta bolo-bolo.

SIMON.- Eta gero "damu dot Jauna" esan, nai ta ordu erdi baino len damutasun ori jokoetan aztu edo galdu.

Nire aldetik itanduten dot: Kofradiaren auzia noiz izan da ume baten aitatasuna jakitea?

DURDO.- Itxasora joaten asia da. Gure gain etorriko dira gertatu leikiozan zoritxar eta ondorenak. Eta arriskuan dabil.

SIMON.- Zeren arriskuan?

DURDO.- Edozein gizonen itxas-arriskuan.

SIMON.- Ikasten dabil.

DURDO.- Zer ikasten?

SIMON.- Zenbat eskola daukazue? Errian?

TXIMIST.- Eskolara bialdu edo ez, bere etxeko en ardura eta zeregiñak izan lei.

SIMON.- Bai eta erriarena be eskolak ipintea.

TXIMIST.- Ori ez da gure ardura.

SIMON.- Ez ain arin arrelakorik esan.

TXIMIST.- Erriaren premiñak be guk jaso bear doguz?

SIMON.- Bai eta ez.

TXIMIST.-Aren utsunak guk betetea nai dozu?

SIMON.- Ez.Baiña nik itanduko dautsuet:Ze jakintza bear da Ondardin? Ez gara danok itxastarrak?

Ez gara danok arrantzaleak?

Eta itxasoak ez al dau eskatzen ikasterik?

Eta arrantzak ez al dau eskatzen gertaerarik?

Gure Kofradia zertarako da?

Ondamendiak euki eta gero negar egiteko?

Umezurtzak eta alargunak eta gaixoak ezin babestuta eta ezin zainduta ibilteko?

Ez zarie konturatzen orrek berorrek argaltasun bat erakusten dauala, izan bear giñaken aurkako alderdia bakarrik erakusten dauala? Kofradi indartsu bat osotu bearrean, argaikeriz betetako Kofradia dogula, eta geure itsukeri eta txikikeriz?

DURDO.- Zelan esan leike ori,ia ondamendi andi bat errira ekarteko arriskua gertu eban batek?

BATIS.- Zeuk zainduko dozuz eta zeure kontura jaso alargunak? Zenbat bear dozuz,ba,asetuteko?

PAUL.- Bere gauzeekin itsututa eta zoratuta dagon bateri entzuten egon bear al gara? Ori be bai?

MILLAN.- Ez dogu esan ba lenengotik boletoa kendu bear jakola? Zetan gabiltz orain bere koplak entzuten?

PAUL.- Mollara urreratzen be laga ez eta bakea.

DURDO.- Edozein izan da be,gizon alu batek agindu eta bere aurrean makurtu bear al gara?

TXIMIST.- Nai dozuena esa,baiña iñori ez faltatu. Berba txar eta minkorrik ez dot lagako.

PAUL.- Zer da berba txarra,alua? Min-gañean berak kendu barik darabilian berba?

TXIMIST.(Destaintsu) Kontuz. Alua eta putia anai-arrebak Mutriku'n.Eta naiko da. Ulertu dozue?

SIMON.- Gauza bat esan bear dautsut Kofradiko nausi lez: Berba ori esaten ibili dan gizon ozkal,txabillu,lipiztari eta asarreari,zelan lagaten dautsazu batzarrean egoten?

TXIMIST.- Kofradia danona dalako.

SIMON.- Baiña ez dakizu legezko dala Kofradian etxe zaintzan edo inguru
zaintzan, eta ori lez, izen da guzti esanda, Paul lez, itxasora kaka
larritan joaten ziranak, errukiz ogibidetu eta leorrean geratu ziranak,
ez daukela batzarretan berbarik?

TXIMIST.- Nik ez dautsat emon.

SIMON.- Bardin datartu egin dau.

TXIMIST.- Baimen barik.

SIMON.- Emen egon ez ba zan ez eban artuko.

TXIMIST.- Eta? Zer eskatuten dozu eskabide orretan?

SIMON.- Ni ez nagoia orrelako baten destainak artzeko.

TXIMIST.- Paul, ba dakizu.

SIMON.- Ba dakizu ez. Edo ori kanpora edo nik ez daukat emen zetan egon.

PAUL.- Zegaitik ez?

SIMON.- Batzarren duintasuna galtzen ba da, batzarretako erabagiak ez dabelako
balioko ez gaur eta ez aurrerantzean.

TXIMIST.- Zer egingo dot, gizonak?

SIMON.- Legea bete.

TXIMIST.- Nun dago ori idatzita?

SIMON.- Ez dakizu gure legerik geienak oiturazkoak dirala eta sekula ez
dirala idatzi izan?

TXIMIST.- Egia da. Eta inoiz zarrei entzuna daukat barruko langilleak batza-
rretara ez dirala sartzen. Baiña ori ondo dago langilleen gorabere-
tan, baiña gaur lakoetan?

SIMON.- Ez zara konturatzen bere botoa nire aurka emon leikela eta bere lagu-
nak ortara berotu?

(Batartuen artean mar-mar luzeak)

TXIMIST.- (Txiliña joaz) Jaunak, gaur lez batzarrik sekula ez dogu amaituko
eta datorren astelenean, eguerdirarte, itxasoterik ez dagon lez,
goizeko zazpiretan batuko gara, arimen albako meza amaitu ondoren.
Eta bear aiña batzen ez ba gara, zortziretan.

SIMON.- Eta zortziretan be batzen ez ba gara?

TXIMIST.- Ba bestetan egiten dana, batu arte bandera gorria jasoko dogu eta
erria arte ezin joan izango da inor itxasora.

DURDO.- Zer da baiña gaia, erabagi ezik be itxasora joan ezin izateko?

TXIMIST.- Nik neure kontzientzia garbitu nai dot.

28
BATIS.- Baiña merezi dau gaiak arrantzu sasoiari itxasora joan barik
geratzea?

TXIMIST.-Neu naz patroia nausia eta neure eskuetan dago batzarretara dei-
tzea.

Batzarra amaitu da astelen goizerarte.

(Berbaro eta asarrea igarriko dira batzartuen artean)

PAUL.- Txotxolo alu orrek, zeuk daukazuz erru guztiak. (Paparretik ora-
tuz aideaan darabil)

(Mariñel batzuk atzeratzen dabe.)

SIMON.- Itxas-oillarria baino zapalago lagako zaitut, beste bain ausartu-
ten ba zara, ikutu be egiten. Eskuilluak aiaña odolik ez daukazu
ta zuk niri paparretik eldu?

TXIMIST.- (Txiliña joaz) Geldi, geldi gizonak!

SIMON.- Ze geldi?

Zelan itxi geldi, bera baino zarragoari paparretik eusten ausar-
tuten dan ozkil bateri?

TXIMIST.-Kontuz berbakin. Itxaso beteko galerrenik ez daigun sortu. Da-
nok kalera.

Kalean nai dozuena esan eta egin. Emen, Kofradian, santa Klarak
argitzen jarrai daigula.

OIALA

III EKITALDIA (BIGARREN ZATIA)

I IRUDIA

(Abotsa, barrutik)

Egunak igaro ziran eta inor ez zan batzarre^{ra} urrera-
tzen. Eta patroï nausiak berean jarraitzen eban, bere esku-
bideko zan bandera gorria erriateko agindu barik. Era orre-
tan galerazota euken arrantzaleak itxasora urtetea. Arran-
tzaleak ez euken ez irabazirik, ez etxerako arrainik. Erri-
tarrak kezkatuten asi ziran.

Itxasoaren irabazirik ez da jakiten, baiña arrain sasoi-
zan eta aukera egon eikean eta galdu egiten zan. Orrela
etxeetako andrak asi ziran larritzen eta gora jo ta urtee-
ra bat eskatzen.

Bizia garrastu egin zan errian.

Emakumeak, besterik ezean, diru partilla eskatzen asi
ziran Kofradietako ondasunak banatzeko, ez-une garratzetan
egiten zan lez. Ez ziran bakarrik gizonak. Or egozan umeak
janari premiñan eta or egozan itxas-biziari lotutako guz-
tiak.

Baiña nun ortarako dirua?

Markiña eta Elgoibar'eko monjak nun egozan ba ekien
Ondardi'ko arrantzaleak. Euren konbentuetan atea jo eben
ordezkariak. Areik izaten ziran aurrelaririk ziurrenak, bai
eta ordaiñaren luzapena eroapentsuen artzen ekienak.)

I IRUDIA

TXIMIST eta BATIS.

(Kofradiako batzar aretoaren aurreko atean)

BATIS.- Gauzak garrastu egingo dira emen.

TXIMIST.-Eta nik zer egitea nai? Errie emon?

BATIS.- Ori, egia esanda, betirako lotsa galtzea izango litzake.

TXIMIST.-Edo ta bandera kendu?

BATIS.- Batzarraren gain seiñeruei (deilariei) errazoa emon?

TXIMIST.-Eta onela jarraitu?

BATIS.- Nik uste dot, guk zirikadak jaurtiarren, Simon ez zala itxasora arroke-
ris joan.

TXIMIST.-Baiña biurtu eikean ariñago.

BATIS.- Edo ez. Ezagutu egin bear da Simon. Aren ustez, kosterrez ibiltea izango
zan eguneko zeregiña. Bat bateko eguraldi aldaketa izan zan. Gainera
esan al eutsen seiñeruak ez urteteko, gero joateagaitik zigortu nai iza-
teko?

TXIMIST.-Paul egaz ez da ondo konpondu.

BATIS.- Bata ta bestea alkarren antzeko. Erreta bizi dira. Oillarrak izan bear
ziran biak, ez arrantzaleak.

TXIMIST.-Eta Txo? Zer diñue? Zelan dago?

BATIS.- Orain ondo. Amalau urte beteteen boletoa eskatzeko asmoz.

TXIMIST.-E?

BATIS.- Entzun dozu.

TXIMIST.-Edo zetara be nik ez dakit zer egin.

Kalean ikusi ordukoxe, andrak or datorkidaz zarataka, jan bearrean.

Alkatea or dabil deika, kaka-larritan, errian ze gertatuko dan-ka. Eta
zer diño abadeak?

BATIS.- Zera arek. Ohispoak ez dautsala emon berari itxasoko giltzik.

TXIMIST.-San Pedro ri nok emon eutsazan ba zerukoak?

BATIS.- Ez ortik jo.

TXIMIST.-Eta itxasoko arrain barriak itsu-itsu jateko almena nundik datorkio
ba?

(BATIS barrura sartzen da.)

III IRUDIA

TXIMIST, LINE eta IZAR

LINE.- (Agertuaz) Sartu leike barrura?

IZAR.- Leike diñozu? Geure etxea ez da ba?

TXIMIST.-Gaur ez. Zer dakarzue?

IZAR.- Zer dakargun? Nundik atarata?

LINE.- Deba'ko Abren artutako antxi^{ba} txikia, zeuk etxean egonda jan dagizuen .

TXIMIST.-Zeinena da errua?

LINE.- Andrena danik ez dozue esango,ez?

TXIMIST.-Ori be...txikota luzatu ezkerro...

LINE.- Zer,ori be?

Kopla barik,gizonak zer? Batu dira? Gurea etorriko zan,ez?

TXIMIST.-Etorri bearko zan.

LINE.- Noiz emongo jakoe itxasora urteteko baimena?

TXIMIST.-Eurei itandu.

Nik zeuori diñotsuet? Noiz bialdu bear dozuez danak batzarrera?

IZAR.- Gaur batzarrrik egiten ez ba da,ba dakizu nortzuk ekarriko doguzan biar? Titi eske dagozan umetxoak. Ia zer emon geinkon guk arei.

TXIMIST.-Zer? Betikoa. Ori inok ez dautsue kentzen.

~~LINE~~
LINE.- Zegaz esnetuta?

IZAR.- Gure mundillak (bularrak) bete egin bear izaten dira lenengo,umeei eurena emoteko.

TXIMIST.- Ori zuen kontua da.

LINE.- Pregoia entzun dogu. Gizon alperrok lotsatu egin bear litzatekez, baiña ondo dago.

IZAR.- Alperrik ez ba da...

TXIMIST.-Zegaitik?

IZAR.- Pregoian esaten dozulako batzarra egin eta amaitu arte diru partillarrik ez dala egingo.

TXIMIST.-Zer nai dozue ba,dirua emon,etxean ordez sagardautegian orduak len baiño arroago eutsiten gelditu batzarrera etorri barik,eta or konpon?

IZAR.- Premiña ba dauke,baiña ori,era baten,gizonak ardiak lez erabiltea da.

TXIMIST.-Gizonari beti lagatan dautsazu zeuk nai daben moduan ibili eta berak gura dauanean ezta batzen?

IZAR.- Ori beste Kofradi bateko autua da. Eta mesedez,ortik ez jo.

TXIMIST.-Zeuk be bestetan ez inor berotu. Joan zaitetze emendik,zuek emen ikusita gizonak gangartu ez daitezaz.

LINE.- Gauzak gaur bertan amaitzen ez ba dira,andrak egingo dogu batzarra ta

erabagiten doguna bete bearko dozue.

III IRUDIA

TXIMIST ETA PAUL.

TXIMIST.-Azkenean andrak pongolak joko dauskuezi!

PAUL.- Batzarra asteko aña batuta dagoz.

TXIMIST.-Benetan?

PAUL.- Nigaz bat geiago.

TXIMIST.-Geraru zaitte kalean.

PAUL.- Zegaitik?

TXIMIST.-Zure zeregiña atea zaintzea dalako.

PAUL.- Eta barrua zaintzea ez?

TXIMIST.-Agintzen dodana bete egizu.

PAUL.- Ori ez da errazoa.

TXIMIST.-Zu leorreko langillea zara.

PAUL.- Itxasoan minduta.

TXIMIST.-Baiña leorreko zereginetan zabiltz. ~~Buk~~ ez daukazu besteen arriskurik.

PAUL.- Gaixo eskubideak daukadaz.

TXIMIST.-Gaixo ba zara be gaizto ez zaitte izan. Danon artean ez nagizue zortu eta denporak baiño len beste mundura bialdu.

PAUL.- Ni neure eskubideari eustekotan nago.

TXIMIST.-Zeure onerako esango dautsut. Ez sartu barrura.

PAUL.- Berbarik ez dot egingo.

TXIMIST.-Emen nai ez dauanak be berba geiegi egiten dau. Barriri diñotsut eta askenez: Ez sartu. (Paul *Paul, kantzen da*)

IV IRUDIA

TXIMIST, BATIS, DURDO, MILLAN, SIMON eta MARINELAK.

(Tximist batzar aretoan sartu eta bere maian jezarten da. Besteak ixilik dagoz, gogaituta lez, arpági illun, garratz eta gogo-bakoak igar-ten jakoezala.)

TXIMIST.-Inor ba al dago, bestetan oituraz etorri ez danik, ustez etorri bearrik ez eukalako? Ba dago kanpora joan daitela.

Esan bear dot, Paul Kofradiako serbitzariari neuk agindu dautsadala barrura ez sartzeko.

DURDO.- Lengo astean batzarrean egoan eta orain zegaitik ez?

TXIMIST.-Eureri/ardurarik ez dautselako.

DURDO.- Baiña Kofradikoak dira.

BATEK.- Irabazirik ez dabe lagaten.

BESTEAK-Beste erara lan egiten dabe.

TXIMIST.-Esan dot ardurarik ez dautsela eta abadeak be bakea zaintzen aie- gintzeko aolkua emon dabe.

DURDO.- Betikoa da ori, isopoa eta ur epela.

TXIMIST.-Mesedez, ez inori ikuturik eta gitxiago Eleizeari

MILLAN.- Lotsarik ba dauka berorrek, kanpaiak ba dira kanpaiekin eta kandelak bear diranetan espelmaz beteta dabillan orrek?

TXIMIST.-Mesedez, onela asten ba gara batzarra amaitutzat emongo dot, era- bagirik barik, eta banderarik ez da beratuko. Eta entzun dozue pre- goia? Diru partillarik be ez da banatuko. Ia Simon, esan esateko dozuna.

SIMON.- Nik? Ni entzuteko nago, ez esateko. Eta zenbat geiago entzun, naiago.

DURDO.- Asi da bere arrokerietan.

SIMON.- Kristo lez naukazue eta zelan izan neike arro?

BATEK.- Kristo lez zagozela? Ori be ez da arrokeria eta zitalkeria?

MILLAN.- Bai zera! Ori, berorrek esaten daben lez, umore baltza da.

SIMON.- Onela ba guaz, alkarri kristonak emoten amaituko dogu.

TXIMIST.- (Asarre zutik jarriaz) Asi gara? Karramarruak lez beti atzeraka ibil bear gara eta alkarri txopinka? Ia, aurreratu daigun.

Nor da berba egin gura dauana? (Ixilunea)

Gizonak, inok ez dau berbarik egin nai?

SIMON.- Ainbeste apar eta bits kalean, eta egin bear dan tokian mutu?

BATEK.- Erabagitekoea egiña ez dago ba?

TXIMIST.-Zetaz?

SIMON.- Zetaz? Errekontxo! Txalopea be ez dozue ba Kofradi aurrera ekarri? Zer pentsaten zenduen, itxasora joango nitzala, zuek etxean zengomen artean?

Nok aginduta txalopa bere tokitik aldatu eta danon begien aurrera

ekarri? Nor izan da ainbeste al eta nortasun daukana? Betikoa?

TXIMIST.-Inok ez dau ezer agindu.Nik ez beinik-bein.

SIMON.- Lendakari izan eta ez dakizu ezer?

TXIMIST.-Ez asi zure eztenkadekaz inor berotuten.

SIMON.- Benporak baino lenago zorriak eznatuten ba jatzuz,erruki zaitut.

TXIMIST.-izan lei beste batzuk suki eta il ezin egitea. Eta ez gaitezan,barrero dihot,akulak lez pikoka ibili.

SIMON.- Ara,igaroak igaro,alegiñak egitera nua,gauza asko aztuta,urtenbidea emotera.

Nik ez dakit zein dan emen buru gogorrrena.

BATZUK.- Zeu bat!

SIMON.- Ixilik egongo zarie? Entzuten ez dakizue? Inor aitatu dot orrela erantzuteko?

Ez dakidan lez,eta nai ta nik pentsatu ez,neu izan ete neiken pelotea aidean artu dodan lez,eskari au egiten dot: Gaurko batzarrean iru zarrenak jarri daitezala mai buruan.

BATIS.- Zegaitik iru zarrenak? Ez dira ba zarrenak azurrak gogor eta lotuenak eukiten dituenak?

SIMON.- Gaztenak orduan,kortxetas!

DURDO.- Bai andrak odolak berotu be.

DANAK.- Ixi!

SIMON.- Emen zarrena ez ba naz be,zarrenetarikua neu izan neiken lez...(Zutik jarrita) Nik eskatuten dot,or aurrian dagozan iru gantzeruak (deilari edo seiheruekaitik)...

(Batziertuen artean asarre agiriak)

SIMON.- Parkatu,parkatu,gantzeru ordez deilariak esan nai neban. Gizonak,ez txartzat artu,urten egin daust neuk be zegaitik ez dakidala,berba orrek. Burua makurtzen nator. Baiña neure antzera iru deilariak be makurtu ~~daitezala~~ daitezala.

HILLAN.-Ointze be amokeriiz zu,potozorri ori!

SIMON.- Arro ez danak,atzamarra jaso dagiala. Baiña parke eskatuten nator.

Ni Ezo gaz itxasora joan nitzanean, beti lez,eta beste askogaz egin nai neuken zeregiña da ori,arrantzaleak,batez be gazteak itxas eskola bear dabelako,betiko antzera berari arrantza kontuak erakustearren joan nitzan.Tokiak,urak,ooldiak,egualdia,erramutarako era,belak...ez al da umetan

erakustea òbe, gero ezin ikasita, askotan ikasi be ez egiteko eran ibili ordez?

Eta mendebala sortzen igarri gendun.

Or geunkan beste ikasbide bat.

Gure bakartadea ezagutu gendun eta bildurretan gendozan etxera, portuko sarrera mareagaz batera egin naian. Baiña ez giñan sasoz eldu, eta portuan sartzen asi ezkerro, ondoratuko giñala pentsatu neban, mutillari agertu be bai, eta itxas zabalera urteteko egokitasuna jakin eragin neutsan, an errezago eusteko asmotan...

Ondo egin neban edo ez?

BAPZUK.-Ondo!

SIMON.- Ba orixe da norbaitek esan leiken nire pekatua. Orrek zigornik merezi dau edo ez?

BATIS.- Edozeineri gertatu lei ori.

BATEK.- Geiagotan be orrelakoak ikusi doguz.

BATIS.- Zoratuta ezik, nor izan lei egoera orretara borondatez makurtu leikenik?

SIMON.- Ziur egon, ba, orrelaxe gertatu zana. Eta orain beste bat. Orrek sekula gure artean zigornik merezi izan ~~da~~ ez ba dau, deilariak ba dauke gure araudietan inori boletoa kentzeko eskubiderik? Arriskuan ibili diran txalopa guztiei boletoa kentzekotan, inok eukiko ete leuke Ondardi'n itxasoan ibilteko baimenik eta eskubiderik?

ASKOK.- Ez!

SIMON.- Entzun dozue?

Zetan jarraitu onetan? Batzarraren aurrean buru gogor jarraitzeko eskubiderik inok ba dauka?

Batzarraren bat-bateko erantzun ori artu, eta jarraitu ete leikie euren-ean deilariak?

DURDO.- Ez da boletoa bakarrik. Eta berbak?

SIMON.- Berbak aidean galtzen dira. Alkarri esanak ez ziran ba? Edo ta besteak mutuak ete dira gure errian?

BATIS.- Berbei jaramon egin ezkerro, andrekin be baziko ete giñateke?

~~OXIENST~~.-Mesedez, andrei baketan laga, baketan dagozan artean.

SIMON.- Eta jarraitu ete leike Aofradiako nausiak bandera gorria erria nai ez da, bein batzarraren erabagia jakin ezkerro?

~~MIKX~~ Danok gertu?

BATZUK.- Bai,bai...

TXIMIST.-Bai edo ez,esan garbi.

BATZUK.- Bai,bai...

TXIMIST. Baietz oibetara?

BATEK.- Bein esan da naiko ez da ba?

SIMON.- Urrengoan berba egingo dogu zein dan lendakaria gaurko diru partilla agintzeko,nundik eta zelan atara daben ortarako dirua eta abar. Ortarako gauza bakoitza bere sasocian.Domuru-santuak urrun dagoz eta kaskarrak obeto ergitzeko denpora artuko dogu.

TXIMIST.-Ori gaurko zeregina ez da. Nik bakarrik esango dautsuet danentzako elduko dala eta ez ibilteko itsu-mustuan alkarren gain.

Batzarra amaitu da. Oraintxe bertan kenduko da bandera gorria.

(OIALA)

IV EKITALDIA

(Kofradiako Batzar aretoan.)

I IRUDIA

BATIS, TXIMIST, DURDO, MILLAN, TXO, PAUL, eta ARRANTZALEAK.

(Gizonak batzuk jezarrita, besteak zuzik, korrotan.)

TXIMIST.-Ia. Ordua data. Jezarri, mesedez.

(Jaramonik ez)

(Txiliña joaz) Mesedez ba! Bestela bazkaririk be ez dauskue emongo-ta!

(Jezarten dira)

Antxiñako oitura beteaz, urteroko batzarra egingo dogu.

Igaz batzuk asarre urten zinen emendik.

Inok ez eban lendakaritza ardura onegaz be jaubetu nai izan. Igaz le-
nean be ez.

Zorra baiño besterik ez dala egiten.

Aurten be ba, zorra eta lorra...

BATIS.- Orretarako zetan batu?

TXIMIST.-Ixo! Oraindik batzarrik ez dogu asi-ta!

DURDO.- Zetan gagoz ba emen, batzarrean ezik?

TXIMIST.-Asiera emotea gertuten.

DURDO.- Asiera emotea ez al da batzarra gogoratzea?

TXIMIST.-Mosedez! Neuk esan arte batzarra asi dala, ez da Kofradiako batzarrik
asten, jakin?

BATIS.- Gu zer gara ba Kofradiakuak ez eta?

DURDO.- Kukan batzarra, orretara?

BATIS.- Ez dakizue? Arima pielen batzarra. Gure aitak esaten ekiana gogoratu,
erdi-bertsalaria zan-eta, beti be bertsoan:

Defuntuen egunean batu,
defuntu ittoak gogoratu,
urteko zorrik ezin pagatu
ta len baiño txarrago jarraitu.

DURDO.- Ondo dago, baiña zuen aita be orrelakoetarako ohea zan, erramuei gra-
kadeak atarateko baiño.

BATIS.- Zeiñek ori esan, mundu guztiak "Zuri" deitsen eutsen orrek?
"Zuri" deitsen eutsen orrek?

DURDO.- Ara ~~bazarrak~~ berau, popakeixu erre au!

TXIMIST.- Mesedez, ez gara batu txakur eta katu lez ibilteko.

BATIS.- Ez dakit ori esan ziñeiken. Zuen familia "Katu"mekoa ez da ba? Eta katuen famili baten...

TXIMIST.- Asi baiño len, batzarra amaitutzat itxitea nai dozue? Kontuz. Ez asko berotzen asi, sua biztu baiño len.

Paul, andrarak ba dago kanpoan?

PAUL.- Batzuk bai.

TXIMIST.- Asteko aiña?

PAUL.- Ziurretik, datozen aiña.

TXIMIST.- Deitu barrura.

II IRUDIA.

LENGOAK eta LINE, IZAR, GARO, IDURRE ta ANDRAZKO BATZUK.

TXIMIST.- (Andrak sartzen dira. Baltzez jantzita danak. Batzuk sorki baltza buruan dabela. Egal baten jezarten dira)

TXIMIST.- Oitura zarra dan eran asiko dogu batzarra.

Igaz baiño amaika lagun gitxiago gagoz Kofradian. Lau gaixorik il ziran. Bizitzako legea. Beste zazpi itto, arrantzalieu oituretan.

Oitura danez, azkenengo onein aipamen berezia egin bearko dogu, banan banan euren izenak emon eta ondorena zeaztuaz.

Zazpirak galerrea baten ondorenez itto ziran.

TXO.- Ezin eikean galerren a aurrez igarri?

TXIMIST.- Ori ez da gure gauza.

TXO.- Igeldoko abadeak ez eban aurrez orrelako kezkaen bat agertu?

TXIMIST.- Bai, ta? Ain zuzen be antxoa astea gertatu zan. ^{Zerbait} Zerbait irabazi nai arraiña aurrean geunkan artean.

TXO.- Eta ondamendia ekarri. Zer da obe?

TXIMIST.- Zu gaztea zara. Oraindik bizarra be baltzitu bakoa.

TXO.- Baiña ez zoroa.

TXIMIST.- Ez nua orretara.

Esan gura neban zu gaztea zarsala, eta ez dakizula batzarra zelan egin bear dan.

TXO.- Nik nai neukena da, eta danon aurrean esaten dot orretan alegindu bearra daukagula, arrantzialien artean illetazko batzar gitxiago egitea.

TXIMIST.- Laga orain beste gauzei, andrak be emon dagoz-eta, Lenengo, oiturak agintzen daben lez batzarra egin daigun. Ta gero gerokoak.

Isto ziranak:

Miel Elu.

LINE.- Jaunak euki begi zeruan. Eta zuek gizonok bere sei umezurtz zuen gogotan.

DANAK.- Jauna, ez ukatu zure errukirik.

TXIMIST.- Peru Badiola.

IZAR.- Jaunak euki bedi zeruan. Eta zuek gizonok gogoratu bere alargun ~~bat~~ maizen onegaz.

DANAK.- Jauna, ez ukatu zure errukirik.

TXIMIST.- Manu eta Batis Burgoa.

BATIS.- Jaunak euki daizala zeruan. Nik, euren aita onek, euren urte beteko batez besteko soldata, ^kKofradiari lagaten dautsalaraz, alargunen mesedean.

DURDO.- Premiñarik ez daukazu ala? Edo ta emen be arro agertu nai?

BATIS.- Neure promesa da.

MILLAN.- Alargunen baten zurikeriz?

TXIMIST.- Ixil! Oroipenetako otoitzean gagoz. Lotsa apur bat, mesedez!

DANAK.- Jauna, ez ukatu berari zure errukirik.

TXIMIST.- Diopil Anakabe.

(Ixil unea)

Ez dago Diopil'en seniderik?

BATIS.- Mutil zarra zan.

TXIMIST.- Oitura dan lez, aren urte beteko batez-besteko soldatatik, laurden bat bere aldeko mezak eskingzeko, beste laurden bat ittotako guztien aldeko mezak atarateko, eta beste erdia...

Iñok ba daki mutil zarra izanarren, seme-alabarik laga ete dauan eskutuan?

Ez?

Orretara, ondamendi aren ondorenez, umezurtz geratu eta lenen ezkontzen dan neskatillaren doterako.

GARO.- Ori ez.

TXIMIST.- Zuk ez daukazu berbarik orretan.

GARO.- Ez ba daukat be egongo dot.

Ori ez, zaure illoba dalako lenen ezkontzeko dagona.

TXO.- Errazoa emoten dautsat.

TXIMIST.-Lenengo batzarretako oiturak ikasi ta gero jardun.

TXO.- Gero jardutekotan, itxi gai ori gerorako.

GARO.- Ori da legezkoa.

TXIMIST.-Esan dot ez daukazula berbarik.

GARO.- Egin dot eta ez jat ardurarik.

DANAK.-Jauna ez ukatu berari zure errukirik.

TXIMIST.-Anton Ibarra.

GARO.- Jauna, nire aita zana zeruetan gorde egizu, eta lurraan, zuek gizonok gogoratu bere alaba onegaz.

DANAK.-Jauna, ez ukatu berari zure errukirik.

TXIMIST.-Miel Atxazpi.

IDURRE.- Ez dago seniderik.

IZAR.- Kajakua zan.

TXIMIST.-Gurea ez da pekatua gogoratzea, errukia eskatzea baiño.

TXO.- Nik eskatuko neuke aren soldata arrantzako ikasketak sakontzeko gordea izan dedilla.

TXIMIST.-Inok ezer esatekorik?

(Ixilunea)

DANAK.- Orretara, gure otoitza aren alde.

DANAK.- Jauna, ez ukatu berari zure errukirik.

TXIMIST.-Andrak, oitura bete da. Mura dozuenean, kanpora.

LINE.- Ezin geinke berbarik egin?

TXIMIST.-Kalean nai dozuen beste. Emen ez.

LINE.- Gu androk, negar eta errukirako bakarnik ete gara ba? Ez al dakigu gure irizpiderik emoten?

TXIMIST.-Emen gagoz gizonak, zuek nai dozuezan edo zuen senitartekoen bidez agertu daitezuezan eskariak agertzeko.

IZAR.- Zurdak baiño besterik ez dozuen gizonoki!

TXIMIST.-Paul, mesedez atea zabaldu, ta zu be kanpoan gelditu.

(Andrazko guztiak asarrezko marmarretan kaleratzen dira. Paul be bai.)

III
III IRUDIA

BATIS, TXIMISTA, DURDO, MILLAN, TXO, ETA ARRANTZALEAK.

TXIMIST.-Orain diru kontuko batzarra asiko dogu.

DURDO.- Obeto ez litzake diru partilla eginda gero batzarra egitea? Aurten oraindak ez dogu dirurik banatu eta jota gagoz.

TXIMIST.-Ba dago mundik, ala?

DURDO.- Orretara batzarrik be ez, dirua batu artu.

TXIMIST.-Oraintxe bertan ikusi dozue. Zazpi lagun itto dira aurten. Eta txarrena, eurekin batean txalupa be ondatu zala. Ori gertaten danetan, familientzat ondamendi eta Kofradiarentzat beste ainbeste gertaten da. ~~BA&AAAA~~

MILLAN.-Zeiñena da errua?

BATIS.- Guregan al dago ori?

TXIMIST.-Bat ilten danean, txalopatik urak atara daualako, edo edozer gauzaitik, bere txalupea, bertako lagunuen alegiñagaz arduratzen da urtel soldata emoten eta aren familiari laguntzen. Baiña txaloparik gertzen ez danetan, Kofradia izaten da danen jaube egin bearreko. Eta jakiña, urteetarako ondatuta geratu.

BATIS.- Ezetan lagundu ba da, zorrak zor, or konpon.

TXIMIST.-Emon da bai. Baiña ez guk irabazita.

DURDO.- Ez alegiñik egin ez dalako be.

TXIMIST.-Oraingoan Mutrikuko monjak aurreratu dabe ortarako dirua.

MILLAN.- Len ez dauke ezer artzeko?

TXIMIST.-Igaz kendutakoa gordin gordin.

BATIS.- Elgoibarkoei kendu bear.

TXIMIST.-Areikin kittu gagozalakoan?

MILLAN.- Markiñan be ez dagoz ba?

TXIMIST.-Len ondo portatu izan ba giña, areik ez ekien ukatzen.

BATIS.- Auxe be entzun bear. Azken baten gure arrain kalak monjen konbentuetan.

DURDO.- Diruekin zer egin da ba?

TXIMIST.- (Asarre) Neuk ardautan edan.

Batek.- Ori be ez jakin.

TXIMIST.-Nor izan da ori?

(Ixilunea)

Nor izan da mamu ori?

Beste batek.-Mamuak kortzelian,ez Kofradian.

TXIMIST.-Gure zarrak Kofradiari euki eutsen lotsa edo begirapena galdu egin doguz.

TXO.- Berbarik egin nei?

TXIMIST.-Beste edozeiñek lez.

TXO.- Emen neu naz gaztena.

Zortzi urte dira sartu nitzala.

Egia esateko,lotsatu egiten naz etorten.

Kalean zentzundun agertzen dakienak,emen olgetan diardue. Kalean lotsadun ezagutzen doguzanak,emen lotsabako.

Zer esan gura dau orrek? Gure izate berberak ez dauskula ardura-rik emoten.

Noiztik datozan be ez dakigun Kofradi onein entzutea laidotu egi-ten dogu.

Gure zarren eta aurretikoen ontasun eta jatortasun guztia,ondatu-ta lez itxi.

Batek.- Nundik norako eskolaua dogu berau?

TXIMIST.-Mesedez,bat berbetan dagonean...

TXO.- Nundik norako eskoladua? Zuek lez,or aurrean,eskola andi orretan, itxasuan ikasia.

Ez dozue ikusten anaiak itto egiten dirala,eta gure gurasoak beti-ko galdu?

DURDO.- Guk esanak esanarren,galduko ez diralakooan?

TXO.- Kofradiari errespetu eta lotsa geiago gorde ezkerro,danak elitzakez gertatuko.

Kofradian geiago indartuko ba giña,alkarri geiago erakusteko eran gertuko giñateko.

Kontuan euki itxasoa aberatsa dala,baiña bai otso gosetia be.Guk, oraiñarte,gosetia baiño ez dogu ezagutu. Zégaitik? Geure erruz.

MILLAN.- Zeuk ez pentsatu au eleiza danik,emen be geure erruz,geure erruz, esan eta esaten ibilteko.

TXIMIST.-Onezkero lotsa zer dan jakin bear zenduke,Millan.

MILLAN.- Burua gaitzeñ asia naz eta aaztu be bai nik. Baiña diruñik ez,

ardaurik ez,ondasunik ez... Onela jarraitu ete leike zentzunez?

Askok.- Ori,ori Millan!

V IRUDIA

LENGOAK ETA PAUL.

PAUL.- (Atea joaz) Sartu leike?

TXIMIST.- Zetan?

PAUL.- Emen enpatxu gogorra dator.

TXIMIST.- Ze gertaten da?

PAUL.- Andrak emendik urten eta alkatearengana joan dira.

TXIMIST.- Alkatea nor da mariñelen gauzetan?

Batek.- Txori malu bat.

TXIMIST.- Sekula ikusi dozue alkate makillarik Kofradian?

PAUL.- Baiña andrak garratz datoz.

TXIMIST.- Onera? Zetan?

PAUL.- Gomea daukela deika datoz.

TXIMIST.- Entzun dozue, gizonak?

BATIS.- Ona ba datoz, nastea sortu aurretik, batzarra amaitu ta kittu.

TXIMIST.- Eta ala ta be ba datoz?

BATIS.- Zeuk jakingo dozu zelan erantzun.

TXIMIST.- Orretara, aurtengo batzarra amaitutzat emongo da?

TXO.- Nire aldetik ez.

TXIMIST.- Zegaitik ez?

TXO.- Oraindik konturik ez dogulako ikusi.

TXIMIST.- Ez dogu esan ba dirurik ez dagola?

TXO.- Esatea da bat, eta argi ikustea beste bat.

TXIMIST.- Zer diñozue gizonak?

TXO.- Ni neurean nago.

TXIMIST.- Baiña zegaitik?

TXO.- Gauzak erabagiten ikasi bear dogulako.

TXIMIST.- (Destañez) Zeu jarri lendakari ta erabagi.

TXO.- Ori be ez. Kofradia danok gara.

MILLAN.- Narrurik lodiena daukanak obetoen biziteko.

TXINIST.-Zer esan gura orregaz?

MILLAN.- Inor ez dot aitatu.

TXINIST.-Kontuz,ba,emen narrua ez e,azala be ez dauke batzuk zuria-ta.

TXO.- (Asarre) Nun gagoz geu?

(Lengo antzera) Danok gara bardiñak Kofradian,lendakari izan edo mariñel soil. Arrantzaleak eta kitto.

Eta batez be gure izateagaz,gure nortasunagaz arduratubá,kezkatu eta geurea lez arpegi emon bear dogunak.

DURDO.- Ez dira bardin Batis patroia eta zu tostarteko soilla.

TXO.- Nik diñot Kofradian danok gareala bardiñak. Ez al da ala?

TXINIST.-Kofradi lez danok gara anaiak,edo izan bear genduke.

TXO.- Ba dirudi orainarte arrantzalea karidadeko izaki bat lez izan gareala. Ondamendi,alargun,umezurtz kontuak entzutera oituak.

Negar malkotan,baiña barruko bakez entzun eta beti alaxe izan bear garean lez. Eta ori ez. Ori ez. Ori aldatu egin bear da.

DURDO.- Ekarri zeuk erremedijua!

BATIS.- Berba errezak esaten danok gara maixu.

MILLAN.- Zu zeuk zer égin dozu orainarte,besteok lez ibili baiño?

TXO.- Ori benetan ba diñozu,nik erantzungo dautsut gure txalopakuak ba dakiela zerbait.

DURDO.- Batek ez eutsuen iges egin zugaz asarretuta?

TXO.- Nik itxasoan alperrari besteen aiñako alegiña eskatzea,gaizto eta zital izatea al da?

Batek.- Zeñegaitik diñozu alperra dala?

TXO.- Zirikalarien batek jakin lei erantzuna emoten.

Nik au esango dautsuet: Zein txalopa izan da aurten arraiñik geien ekarri dauana? "Ur Txoria" ez?

DURDO.- Arrokeririk kantaten ez asi.

TXO.- Kantaten eta kontaten. Baiña ez bitsetan eta aparretan,egitan baiño.

Zein izan da Kofradiaren kontura botikarik gitxien eroan dauana? Ez dakizue?

Zein izan da Kofradiari,bere eunekotzatik,bere urrengoak baiño birritan geiago itxi dautsana?

PAUL Andrak ba datoz. Zer esango dautset?

yJ

TXO. Etxeetan euren buruari kenduta be jaten emoten dauskuen andraen bildur zarie?

ANDRAK. (Kanpoan) Umeak goserik dagoz. Diru banaketa!

TXIMIST.-Eskatzea libre da eta erreza. Diru banaketa! Nundik?

TXO.- Bestetan ez al zan gaurko egunez egiten?

TXIMIST.-Bai, egiten zan, baiña aurten ezin, len esanġ dogun lez.

TXO.- Eta ezin au bear lez atzo zabaldu izan ba litz, lotsari au eroan bearrik egingo ete zan?

Ori be Kofradian kendu bear dana da. Barruko gauzak zegaitik sa-soiz agertu ez?

ANDRAK.- (Kanpoan)

Umeak goserik dagoz. Diru banaketa!

TXIMIST.-Esanak esan, orain or dogu kakua.

TXO.- Aldatzen ez ba gara, gero ta latzagua.

VI IRUDIA

LENGOAK ETA LINE

PAUL.- (Atean) Ezin ziñei sartu.

LINE.- Neu sartu ez? Gure etxea ez da ba?

PAUL.- Esan dautsut geldi egoteko.

LINE.- Kontuz gero niri paparretik oratuteagaz.

PAUL.- Onean esan dautsut ezin ziñeila sartu.

LINE.- Onean esan dozula ta paparreko botoiak eten? Nor zara zu orretarako?

PAUL.- Emen beintzat agintzeko arduraduna, ondo dakizun lez.

LINE.- Esan dautsut niri ikuturik ez egiteko, neuk dakidan alde batetik kolpe eta zeu aidean erabili barik.

TXIMIST.- Mesedez! Zer darabiltzue? Ze gertaten da?

LINE.- Ezin al giñei zerbait itandu eta jakiten sartu?

TXIMIST.- Orain batzarrean gagoz.

LINE.- Emen giza batzuk esaten ausartuten^{ez} diranik, guk ezin ete giñei eskatu? Ez dozu^e entzuten nire lagunak? Ez dozue^e entzuten zeuon

andren eskabideak?

ANDRAK.-Umeak gose dagoz. Diru banaketa!

LINE.- Guk ba dakigu,aurten ondarendi asko egun dala. Eta orrek uztu egiten ditula diru ondakiñak.

TXIMIST.-Dakizuela,zetan zatoze zarataka?

LINE.- Baiña gizonak ba dakizuez eskutuko diruak gordeten. Aratuztetako jan edanetarako ez al daukaguz ezer?

TXIMIST.-Ez gara asiko apurrak batzen.

LINE.- Ogi koskorrik ez dagonean,apurrak be jan egiten dira. Eta gosea gaur dago,ez aratuztetan.

TXIMIST.-Ori geien be egun biko urteera izango litzake ^{asko lota,} ~~geien bat.~~

Gizonak,gertu zagoze orretarako?

DURDO.- Oiturea galtzea ez litzake ori?

TXO.- Zelako oiturea?

DURDO.- Ba San Pedro Txiki,Aratuzte eta abarretako oitura.

TXO.- Ni oiturak baiño premiñak lenago dirala ta nago.

MILLAN.- Andrea artzen dozunean,bada ezpadan ez erakutsi orrelakorik.

LINE.- ~~AAAAAAAAAAAAAAAAAAAA~~ Ai neu gazteago ba nitz,onelako bat artzeko!

TXIMIST.- Gizonak,ezetzik ez dago eta zer egingo dogu? Arratsaldean dagoana banatu? Egun birako baiño ez da elduko baiña...

LINE.- Alegiñak egin,irugarrenian ez daigun jo lurrik.

(Urteten da)(Bai eta Paulo be)

VII IRUDIA

BATIS, TXIMIST, DURDO, MILLAN, TXO, ETA ARRANTZALEAK.

MILLAN.- Au ikusi da. Batzarra amaituko zan,ez?

TXO.- Gauzak aidean itxita ezin giñei batzarrik amaitu.

BATIS.- Egurdiko egarriari ezin eutsi?

MILLAN.- Guk emen egin geinkena ikusita dago.Bai bai esan eta kitto. Orretarako aitnak eta jakitunak geratu daitezala. Edo ta barrigtu nai dabenak.

TXO.- Nigaitik diñozu ori?

Nik gauza bat esangä dautsuet. Lengo eran jarraitzekotan, ni arran-

tzale izateari uko egitera nua.

DURDO.-Beste tokietan ez al dabil inor ortozik?

TXO.- Txakurrak bai,gizonak ez. Edo ez leuke ibili bear.

TXIMIST.-Zetan geratzen gara diruekaz?

BATIS.- Barrero be? Arratgaldetan emakumiei deitu ta dagona emon.

TXIMIST.-Eta gero?

BATIS.- Danok konforme ba zagoze,ni gertuko naz Markiñako konbentuan nagusi dan gure illobari ondo ondo berba egin eta zerbait ataratera.

TXO.- Baiña orretara guk be erantzuten jakin egin bear dogu. Eta erantzuteko ardura artu.

TXIMIST.-Eskatzeko bai bai errez esaten da. Gero izaten dira kontuak. Etorri ez,iges egin,eskutatu,lepoa jaso ta abar.

TXO.- Ez dago orretan zetan ibilirik be. Lenengotik kendutako dirua batzen joateko,amar zentimo geitu arraiñari Kofradian laga bearrekotan.

BATIS.- Zegaitik ez etxe eguntzat edo erdi jaitzat daukagun baten,baimena eskatu eta danok arrantzara joan eta ekarten dan guztia orretarakoxe itxi?

TXO.- Baimena zeñeri eskatu itxasora joateko?

TXIMIST.-Ba dakizu jai eta jai erdietan abadearen baimena bear dala.

TXO.- Jainkoaren legea betetea be naiko dogu gu pobreak,abadienak be beteten beartu barik. Borondatez bai,Ez dakit inok beartu geinkezan.

MILLAN.- Ori be ez dago txarto.

DURDO.- Eta ori zuloa tapatu arte ala betiko?

TXO.- Lanak ez gaitu bildurtu bear. Zegaitik ez betiko? Premiñarik ez dagonetan or geldituko litzake banatuteko be. Ala belauniko eskale ibiltea naiago ete dogu?

TXIMIST.-Jaunak,gertu zagoze hostna ogerleko partilla egiteko,Markiñako monjai dirua eskatzera? Ba dakizue euneko lau ta erdi eta geien be urte birako emoten dabela.

MILLAN.- Ni bañ.

BATIS.- Zuk baietz esango ez dozu ba,ze kendu be ez daukazu txarrera joan ezkereta?

Ori geuk esan bear genduke,zela alako txalopak doguzanak. Eta ni, lenengotik,errian bakea izan dedin be,baietzean nago.

TXIMIST.-Zu gertu ba zagoz ni be bai,eta orañarte akatsik ipini ez dabenak

ez dira,ain zuzen be unerik larrienean,atzeratuko.Ez?

(Danak ixilik)

Batis,zure gain geratzen da ori.

Eta orain azken gauza bat. Lendakari beti ni izan bear al naz?

BATIS.-Amorratzen ez zagoz ba izateko?

D URDO.-Len nai izaten zandun ba! Orain koiperik ez?

TXIMIST.-Sekula ikusi nazue eskuak koipez beteta,edo Kofradiako kontuetan mokoloirik egiten?

MILLAN.-~~Millan~~ Nok daki ~~akasa~~ emen kontuak aztertzeke aiña eskola?

TXIMIST.-Eta nik al daukat errua zuek firmaten be ez jakitearena?

TXO.- Gizonak lotsatu egin bear giñake egoera onetan aurkitzeagaz. Beste gauzen artean,nik eskatzen dodana auxe da:arrantzalienezako maixu bat ainbat lasterren ekarteko.

DURDO.- Nundik ordainduta?

TXO.- Gizonak,ikastea gizonaren errenta da. Ziur egon. Ez letrak bakarrik. Guk dana dakigula pentsatuarren,gaitasuna edo teknika be ikasi bearra dogu.

MILLAN.- Indarra obe erramutarako.

TXO.- Oker zagoz. Erramutarako eta lemarako,eta ez ori bakarrik,arraiña billatu eta arrantzateko be ikasi egin bear da. Sinistu egizue.

VIII IRUDIA

LENGOAK ETA IDURRE.

IDURRE.- (Atea zabalduaz) Sartu lei?

TXIMIST.-Ez al dago or Paul?

IDURRE.- Kale kantoiko tabernan ikusi dot.

DURDO.- Gu barruan,egarri eta a kalean beteta. Eta a jornalean,eta gu eskama barik.

MILLAN.- Or dago.

TXIMIST.-Ez dakizu andrentzat arratsaldean dala?

IDURRE.- Mesedez,gizon batzuk etorri zaitzeze.

TXIMIST.-Batzarrean gagoz.

Zè gertaten da?

IDURRE.- Simon itto egin da.

TXO.- Simon itto? Itto ala il? Oean ez egoan ba?

IDURRE.-Itxuraz sukarrak burua galdu eragin dautso. Eta bera, inor kontura tu barik oetik jaiki, bere batela egoten zan tokia joan da. Eta an laprast egin, konor~~z~~ barik gelditu eta an dago batelaren endoan, soka artean, ittota.

MILLAN.-Azkenean be buru gogor eta setatsu a berean. Arro a,orra orain.

TXIMIST.-Mesedez, illei lotsa gorde.

TXO.- Ori esateko nenguan.

Simon inok ezagutu ba dau, ni izan naz. Eta nik diñotsuet ez dala izan arrua. Alegintsua baiño. Ez dala izan itxasoan zoroa, jakintsua baiño.

Danok gogoratuko dozue zer gertatu jakon nigaz txiki nitzala. Nik diñotsuet, a baiño irakasle obarik ez dodala inor ezagutu zuen artean. Ez daukat lotsarik esateko. A niretzat maixu bat izan zan eta bere irakatsiei esker, itxasoan gero ta errezagot ibi ten naz. Ibiltearen zale gaiñera. Eta a itto ba da, sukarrak eta urteak beretik atara dabelako izango da.

IDURRE.- Soka artean nastauta dago.

TXO.- Sukarrak itxi ez areri molla egalean a egoten dan soka nasterik ikusten.

TXIMIST.-Nik uste dot bandera gorria jaso eta batzarra amaítutzat emon bear dogula.

TXO.- Illeta ondoren jarraitzeko?

TXIMIST.-Ala deritxazue?

Batzuk.- Bai, bai...

TXIMIST.- Oitureari jarraituz bere izena be gogoratu daigun ittoen artean. Simon Arteta!

IDURRE.- Jaunak euki begi zeruan. Eta seniderik geratzen ez jakon lez, nik zueri eskatuten dautsuet bere illeta Kofradiatik ordaindu dagiala. Nire aldetik, berak azken urteetan niri itxitako batel eta tresnak, Kofradiari eskintzen dautsada, aurtengo umezurtzeta tik lenen itxasotzen danarentzat.

TXIMIST.- Eskubiderik ba dozue orretarako?

IDURRE.- Ez dot esan berak nire kontura lagata daukazala? Uste dot ori izango dala nire seme Txo'ren gogua be. Ez?

TXO.- Neu baliatzea baiño naiago dot beste bat entzako izatea.

TXIMIST.-Ala dala... gure otoitza bere alde.

DANAK.- Jauna, ez ukatu berari zure errukirik.

(Bereala asten dira barrukoak Simon'en kezkas urteten)

OIALA